

# **KOLPEAK EKONOMIARI**

*Posted on 17/09/2015 by Naider*



Susperraldi ekonomikoa aurrera doa, sasoi batean bada ere. Oraingo honetan ELGA (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) izan da 2015 eta 2016 urteetarako munduko hazkunde aurreikuspenak apaldu dituena, gora egiten ari diren ekonomien ahultasunaren eta Txinako ekonomiaren moteltzearen ondorioz.

ELGak espero den munduko hazkunde-tasa hamarren bat murriztu du, eta horrela %3an geratu da. Hala eta guztiz ere, erakundeak ziurtatzen du "susperraldia aurrera doala" ekonomia aurreratuetan, tamalez, ezin du gauza bera esan garapen bidean dauden herrialdeekin, non hazkunde tasak nahi baino askoz txikiagoak diren.

Euroguneari dagokionez, erakunde ekonomikoak hamarren bat hobetu du 2015erako ekaineko aurreikuspena, %1,6ra arte, baina 2016rako bi hamarren murriztu ditu, eskualdeko BPG %1,9 haziko baita.

**There are no comments yet.**